

Telebistan ez dira maitasun istorioak kontatzen, minuturo albiste txarrak baizik, baina gure neska ez da eserlekutik mugitzen ere, harik eta bere begien aitzinean irudia erabat aldatzen den arte: ez da aurrekoan ezaguturako mutilaren irudia, baizik eta orakulu ilun bat izarren arteko mezu batekin ...

"Izar, Izar, Izar..." neskak bere izena entzun ondoren, adi-adi jarri zituen belarriak orakulu iluna ulertu nahian... "Izar, Izar... zertan zabilta? ahaztu al duzu zertatarako bidali zintugun mundu ezjakin horretara?"

—Ez, baina...

"Badakit urte asko daramatzazula mundu zikin honetan lan gogorrean, baina ohartzen al zara zenbateko kaltea egin duzun orain gelditzean? Ez da zure mailakoa maitemintzea, zu bezalako izakiak ez dira gizaki batez maitemintzen, entzun? Oroit zaitetz mundu honetan konkordia baldin badago, gure munduan ere konkordia egongo dela eta horrela unibertso osoa harmonia guztizkoan egongo da. Badakizu. Zu helburu jakin baterako sortu zara eta hori ez da maitemintzea. Oroitu. Oroit zaitetz beti, beti, beti..." orakulua pixkanaka airean ezabatzen da, Izar gure neska pentsakor utziz eta zer egin jakin gabe. Bat-batean bere eserlekutik mugitzea erabaki eta telebista pizten du. Horren albiste txarrak entzunda, gorputz osoa sutzen zaio haserre bizian eta unibertsoetik horrenbesteko energia pilatzen du, ezen airean gorantz suziria bailitzan munduko atmosferatik kanpora ateratzen den.

Orduan, mundua bere begien bistan duelarik, pilaturako energia osoa munduan deskargatzen du: munduak horrenbesteko indar energia jasan ezinik, unibertsuan desoreka gertatzen da. Bat-batean mundua dardaraka hasi eta ezbehar natural asko gertatzen dira denak batera, hala nola sute handiak, lurrikarak, itsasilkarak, uholdeak, tifoiak, zikloiak ...

Baina horrela, munduko gaitz guztiak betirako desagertu dira eta gizakiak, berriz, ez du ontasuna eta maitasuna besterik ikusten bere inguruan. Neskak mundu fisikoaren malgutasuna profifatuz, bihotz irudia ematen dio munduari eta horren ondorioz, mundutik unibertsora maitasunezko lurryn goxoa botatzen du etengabean.

Hala bada ere, unibertsuan beti harmonia, konkordia, bakea, maitasuna eta askatasuna egonik ere, munduak ez du gehiago bihotz ixurrako esku-zorroa daraman beltzezko neska ikusiko ...

### **Baina lapurrari ilargia leiho batean ahantzi zitzaion.**

Eta geroztik, ilargi berriko gauetan, gau ilunetan, Izar batek dizdiz egiten du sabai batera keinuka oso berezi, atzera begira.